

Estatolatrak triste

TXILLARDEGI / Hizkuntzalari eta idazlea

HOY ESCRIBE

Belgica Estatu hiltzorian. Horixe da albistea. Orain dela urte batzuk «la Belgique à papa», frantsesa eta batua, hil zen. Gaur, berriz, Belgika bizfaldo federalaren heriotza iragartzen da. Frantzia ahlutzekotan sortu zen Belgika Estatuak bi mendez iraun du.

Hau dela-ta, "Le Vif-L'Express" belgikar asteakari bere 2.362. zenbakia arazo honi eskaini dio (1996-X-17koa); azalean letra handitan hitz hau irakur daitekeelarik: *separatismes*.

EGINek ere ongi daki honen berri; eta joan den neguan, urtarrilaren 13ko zenbakian, orrialde osoa erabili zuen krisi honen berri emateko.

Guk ezagutu genuen Belgika batua (paperetan batua bakarrik, egia esan) hila zen jadanik. 1993ko Konstituzioak honela dio bere lehenengo Artikuluan: «La Belgique est un Etat Fédéral qui se compose des Communautés et des Régions».

Zein Komunitate? Zein Lurralde? Bi hitzetan esango dugu. Hiru komunitate, hiru elkarte etniko: flandriarra, waloniarra eta alemana; eta hiru lurralde: Flandria, Walonia eta Brusela.

Federazio horretan flandriarrak dira gehienago: 6 milioi; eta waloniarrak gutxiengo: 4 milioi. Ekialdean bizi diren alemanak, 65.000 besterik ez dira.

Azken ohar bat: Flandriako hizkuntza ofiziala, nederlandera da, Hollandakoa bera; eta Waloniako hizkuntza ofiziala, frantsesa, Frantziakoa bera. Era berean, belgikar alemana hizkuntza formalak, Alemaniako alemana bera da. Dialektoen eta diglosien arazoak alde batera utziko ditugu.

Ekonomikoki Walonia izan da Belgikaren ardatza joan den mendean. Gaur egun, Waloniako ikatzak bere balioa galdu ondoren, Flandria da buruzagia. Bi komunitate-en arteko tiraberrak azkartuz joan dira aspaldidanik; eta orain berezketaren aldekoak datoz indarrean.

Alde batetik, belgikar frankofonoek, François Perin-en eskutik, flandiarren-gandik berezi nahi dute, eta Frantziara pasatu.

Belgikan bi herri daude. Bi herri-atal esatea hobe. Eta bitasun horri erantzun instituzionala eman behar zaio

Bestetik, belgikar nederlanderadunek, Lionel Van Den Berghe-ren eskutik, bat egin nahi dute flandiarrekin (1992); 21 milioi biztanletako Estatu bat osatuz.

Eragozpenik bai? Noski. Bateko, berrehun urte horretan, nola-hala, belgikarrek elkarrekin burutu duten konfiantza dago. Besteko, ekonomia-aren sortu diren lotura «belgikarrak».

Baina, horiez gain, eta nabarmenki: Belgikako Erregea dago, eta Laaken, eta Monarkiari lotutako parafernalia. Eta, bigarrenik, Brusela. Gaur egun Brusela batera baita Flandriako Hiriburua ofiziala, Belgikako Hiriburua, eta Europako Hiriburua.

Oraindik zailago: Brusela Flandriako lurraldean dago, inguru guzian nederlandez mintzo diren udalerririk ditu; baina bere hiru laurdenetan hiri frankofonoa da (joan den mendean gertatzen zenaren kontra). Orain dela ehun urte, Brusela nederlandez mintzo zen, oro har.

Gero eta maizago Txekoslovakia biktunaren berezketak aipatzen da: han ere bi polu zeuden (Praha eta Bratislava, eta txekiarrak eta eslovakiarrek), eta haserretik gabe berezi dira. Eta kitto. Gauza bera egin ote daiteke Belgikan? Ezin esan.

Orain Belgikako frankofonoak oso etsita daude; eta jasaten ari diren «mespretxuari» muga bat jarri nahi omen diote.

Baina Estatu waloniar burgesia-aren zerbitzutan erabili den tresna izan dela garbi dago. Zaire-Rwanda-Burundi-ko tragedia ikaragarriak erakusten digu hau garbi egun hauetan. Hiru afrikar Estatu horiek Belgikaren kolonia izan dira. Hots, Mobutu diktadorea eta gainerako buruzagiak egun hauetan telebistan azalpenak ematera azaltzen direnean, frantsesez mintzo dira.

Orain hori egia ez bada ere, barragarri gertatzen da frankofonoak «jasaten duten mespretxuaz» mintzatzea. Belgikan bi herri daude. Bi herri-atal esatea hobe.

Eta bitasun horri erantzun instituzionala eman behar zaio. Badirudi (oso logikoa denez) lokarri etniko-linguistikoa gaina hartzen ari dela.

Nor arranguratuko, eta zergatik?

Lección de historia

Alizia STÜRTZE / Historiadora



NIRE TXANDA

Yo, que nací en pleno franquismo, he tenido sin embargo que esperar a disfrutar de esta «democracia» estatutario-española para alcanzar a comprender intelectual y vitalmente los mecanismos económicos y psicosociales que posibilitan el camino hacia formas más o menos autoritarias e incluso fascistas de gobierno. He tenido que conocer esta chapucera reforma sin depuración para percibir en toda su crudeza algo que técnicamente ya sabía: que democracia parlamentaria (burguesa) y fascismo son en el fondo la misma cosa; es decir, que el fascismo no es la negación de la democracia pluripartidista en la que, se nos quiere hacer creer, todos los grupos sociales y nacionales tenemos la posibilidad de defender nuestros intereses, sino la forma más extrema que adopta el capital cuando la democracia no le garantiza suficientemente su reproducción.

Con esto no quiero decir que estemos en la antesala de un fascismo político, sino que esta democracia purulenta y hedionda constituye, desde su zafiedad, una diáfana lección de historia de cómo puede un sistema conseguir desactivar los mecanismos de defensa de los intereses populares y prostituir a precio de saldo a sus representantes políticos y obreros para que se encarguen de alinear a la mayoría alienada del lado del enemigo y de sus valores individualistas y consumistas, del lado del capital y los aparatos ideológicos y represivos que le sustentan (prensa, policías o «funcionarios carceleros»), posicionándola ferocemente en contra de quienes mantienen la dignidad nacional y de clase. Está allanado así el camino hacia cualquier forma autoritaria que pueda necesitarse para vehicular la reestructuración del capital en crisis con represión («pactos sociales», control informático...) y con férreo control ideológico que va desde la unidireccionalidad de informadores y tertulianos creadores de opinión, hasta la basura programática de la TV.

Belloch eructa y Anasagasti le contesta. Arzalluz trueno populismo barato, bajan los índices de popularidad de Aznar. Cascos es un pecador... Nos magnifican trivialidades, nos entretienen con las vulgaridades de estos políticos de guñol para hacernos sentir actores de una democracia que no existe porque en la nueva era a la que estamos accediendo, los centros de decisión no se encuentran en los parlamentos sino en las corporaciones transnacionales y en sus instituciones (FMI, Banco Mundial, G-7, CEE, GATT...), desde donde se decide unilateralmente, «fascistamente», quién de nosotros debe vivir o morir y de qué modo. A la «democracia» no le corresponde sino hacer este trabajo sucio con el mínimo costo.

HEMEROTEKA

Enbata

Ahalgingarria!

Sar hitza

Denbora iraganik ere, ez daitezke ahopaldi batzu berriz aipatu gabe utz. Bayrou-k Irisarri euskal departamenduaren aldekoetaz erabili dituen hitzak zinez ezin onetsiak dira. Minoria batek nolaizbait bere nortasun eta osotasunaren ezagupen eta onarpena galdatzea gutti gora behera irredentzismoa eta faxismoa dela erran du. Analogia hori egitea ahalgingarri da (ahalgerik ba ote da oraino?). Eta gainera gezur lotsagabea, Bayrou-k arras ontsa badaki ez direla guttiengoak faxismoaren erreka deitoragarrirot erori, bainan bai herrialde nagusi zapaltzaileak. Turkia joan den mende ondarrean eta honen hasta-

penean, Espainia Frankoren denboran, Alemania nazien garaian, Frantzia, Vichy-ko gobernuaren menpean eta Zerbia berrikitan. Horiek bai izan dira faxismoaren mutilik suharrenak. Eta ezin asmatuzko erahiltzeen hobendun. Garbiketa etnikoaren izenean jendeak milunka eta milunka hilarrak baituzte.(...)

Bayrou-k, ixtoria jakinik, gauzak lehen nola iragan diren badaki. Orduan horrelako adierazpenak publikoki egiten ditueanean —eta ez normahiren aintzinean— zinen zozoarentzat hartzen gaitu. Edo mensa da.

Ahalgingarri da ere ezbaitada hain hortara jaustaraztea. Nahi dut bere botere eta honek dakartzion interesen zaintzeko zernahitara prest laitekeela (Biarnoan RPR-a nagusi izanez, departamenduko Euskal zati hontako kontseilari UDF-en sustengua galtzen balu ez laiteke gehiago Kontseilu Nagusiko buru). Nahi dut,



Asisko + Carlos + Kirmen "Argian", 1.599 zenbakia.

Euskal Departamenduaren kontra aritzeko, funtsezko argumentu ekonomikorik edo sozialik ez daukan. Hala ere hixtoria horrela ber-idatzera entsaiatzea ezin onetsia zaigu. Guri bederen. Frantsesentzat besterik da. Denek diote Bayrou-ren asmoa errepublikako kargu gorenezat heltzen dela. Frantsesek azkenik lehendakari-tzat hautatu dituzten gezurti zintza ez-deusen lerroan ez lezake

gure Biarnesak batere gaizki egin. Baluke bere lekua.

Bego Bayrou bere interes berekoiaren alde ar dadin. Baina nola ulert Iparralde hontako hiri nagusietako auzapezen joko moldea? Bayrouren alde aritzeak, haren eta Paberen interesen defenditzeak zer abantaila ekarriko diete? Ezin konprenitua da alde batetik Baionak Iparraldeko hiri nagusi behar duela aldarrikatzea eta bestetik ez duela pfredura batek ekar litzazkeen lan bideen beharrik.

Nago ez ote den funtsezko arrazoena ezin aitortuzko horietarik. Egoizmoa, berekotasuna. Behar bada, Iparralde hau ez baita hain zabalak, izaite administratibo bat bala, itsas aldeko hiri gotorenek barnekaldeaz orain baino gehixago arduratu beharko lukete. Eta barnekalde hortarik etorri eskakizunak gehixago entzun. Orain hits eta hoben guztiak Paberen bizkar ezar daitezke. Boterea hain baitago. Erantzukizun eskasak badu onik.